



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/05/19

Aldundiak hainbat aukera aztertu ditu, Zugaztietako golf zelaiaren kudeaketa eredu "garai barrietara" egokitzeko

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatu jaunak Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordean gaur iragarri dauenez, Aldundiaren helburua, 2017ko garagarriletik aurrera Zugaztietako golf zelaiak kudeaketa eredu barria izatea da. Aldundia "hainbat aukera" aztertzen ari da, lurralde honetan dagoan golf zelai publiko bakarraren ustiapena "gaur egungo garaietara" egokitzeko.

Aزتتzen ari diran aukeren artean, lizitazinorako plegu barrietan, emakidea lortzen dauen enpresak, lehiaketako sare profesionaletarako zelai erakargarria bilakatzea, eta bisitetan gaituen pertsonentzako turismoko jarduera gunea izatea lortu behar izatea jaso daitela dago. Gainera, "jarduera publiko-pribadu" barriak eta golfa "eskolako munduari, ikasleei" gerturatzeraz bideratutako beste batzuk bultzatzea aurreikusten dau Aldundiak.

Baldintzen plegu barria, une honetan indarrean dagoan emakidea amaitu aurretik egon beharko da prest. Meaztegi Golf ABEE-UTE deritxona, 19 milioi euroko inbertsino publikoa egin ostean 2005eko garagarrilean atek zabaldu ebazanetik Zugaztietako golf zelaia kudeatu dauen enpresa bietako bat da, eta bere kontratua 2017ko bagilaren 30ean bukatzen da.

Talde Mistoak eskatuta batzordera etorri dan Pradalesek jakinarazo dauenez, kontratua bukatu baino "sei hilebete lehenago" Kirolgintzan soziedadeak instalazinoen inbentarioa egingo dau, instalazino horreek baldintza egokietan itzuli daitezala eskatzeko. Egon daitekezan gabeziak konpontzen ez badira, Azpiegiturak soziedadeak, zelaiaren jaubeak, bere egunean ezarri zan bermetik ordainduko ditu. Batzarretako taldeek egindako galderei erantzunez, Pradalesek behin eta barriro esan dau alderdi horretan kontratua "bermatuta dagoala", "1,5 milioi euroko" balioa dauen bankuko abala dagoalako.

Diputatuak diru-sarreraren, abonaduen eta urteeren gaineko datuak be emon ditu, eta baieztu dau Foru Aldundiak, emakidako bederatzi urte horreetan "2,44 milioi euro" jaso dituala, eta horreetatik "201.784 euro" 2015. urtean jaso zirala, kanon moduan ("127.326 euro kanon finkoa eta 74.458 aldakorra"). Jasotako diru hori Bizkaiko gizartera bideratu da, "ekonomiaren sustapeneko jarduketetan".

Kirolaren arloan, diputatuak baieztu dauenez, "azkenengo hiru urteetan" golf zelaiak urteko urteera kopuruari eutsi deutso, "43.650 urteera", erabilera maila "ertaina-altua", bere berbetan. Kopuru hori nahiko giro gaitzean lortu da, ekonomia krisian egon dan garaian, garai horretan sektore osoak jasan dauen ondorioetako bat abonaduen galerea izan dala kontuan hartzen badogu. Erresuma Batuak "128.000 lizentzia" galdu ditu,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZK A I A

Suediak “100.000 baino gehiago”, eta Euskadin, jaitsiera “lizentzia guztien %11,6koa” izan da.

Pradalesek adierazo dauenez, ekonomiaren krisiak zelaiaren erabiltzaile-tipoa aldatu dau. Orain jolasten dauen bakoitzean ordaintzen dau, abonua ordaindu beharrean. 2015ean, Meaztegi Golfek “793 abonadu eukazan”, eta 2007an "2.322" eukitera heldu zan. Eguraldiak ez eban asko lagundu 2015. urtean, “golfean aritzeko 218 egun” baino ez ziralako egon, hau da, euririk bako egunak. Halanda be, "42.000 urteera" zenbatu ziran. Kontuan izan behar da 2007an "36.305 urteera" egon zirala.

ERABILTZAILAEN KEXAK

Talde Mistoko Arturo Aldecoa, instalazioetan eta ezelango erregistro barik zelaia erabiliz ordainketetan akatsak dagozala adierazoten daben kexak aurkeztu dituen erabiltzaileen salaketa posibleen gaia aitatu dau. Pradalesek erantzun dauenez, “ez Azpiegiturak, ez sailean, ezta Aldundian be, ez dogu ezelango kexarik edo salaketarik jaso” gai horren gainean. Bere egunean enpresari horren inguruko itauna egin ostean, diputatuak behin eta berririo esan dau kirol ingurunekeo kafetegian ordainketak egin dirala, erabiltzaileari emoten jakon zerbitzu moduan, eta urteerak erregistrauta geratzen dirala be esan dau, baita federazioaren orri ofizialetan be, kirolarieke eurek holan izatea gura dabelako, "handicap" deritxonagaz erlazioautako errazoiak dirala eta.

EZEZKOA BIZKAIKO EUSKUDEL EREDU PROPIOARI

Arturo Aldecoa Talde Mistoko kide bakarrak, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako batzordean, Aldundiak “hondartzetako eta erreketako ertzetako pasealekuetan eta begiralekuetan eskudel ereduazarteko aukerea” aztertzea defendidu dau. Bizkaikoa izango dan eskudel eredu propioa aukeratzeko “idea lehiaketa edegia” sustetea eskatu dau. Arauz besteko proposamenak ez dau aldeko botorik jaso. PP abstenidu egin da, eta batzarretako gainerako taldeek kontrako botoa emon dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

19/05/2016

La Diputación analiza distintas opciones para actualizar "a los nuevos tiempos" el modelo de gestión del campo de golf de La Arboleda

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha anunciado hoy en una comisión en las Juntas Generales de Bizkaia que la intención de la Diputación es que el campo de golf de La Arboleda tenga a partir de julio de 2017 un nuevo modelo de gestión. La Diputación está realizando un análisis con "distintas opciones" para actualizar "a los tiempos actuales" la explotación del único campo público de golf del territorio.

Entre las opciones que se barajan incluir en los nuevos pliegos de licitación, se encuentra la posibilidad de que la empresa concesionaria deba lograr que el campo sea atractivo para redes profesionales de competición y foco de actividad turística para aquellas personas que nos visitan. La Diputación espera, además, que se impulsen nuevas "actividades público-privadas" y otras destinadas a acercar el golf "al mundo escolar".

El nuevo pliego de condiciones tiene que estar listo antes de que termine la actual concesión. La UTE Meaztegi Golf es una de las dos empresas que han gestionado el campo de La Arboleda desde que este abrió sus puertas en julio de 2005, tras una inversión pública de 19 millones de euros, y su contrato finaliza el 30 de junio de 2017.

Pradales, que ha comparecido en la comisión de Desarrollo Económico y Territorial a petición del grupo Mixto, ha señalado que "seis meses antes" de la finalización del contrato, la sociedad Kirolgintzan realizará un inventario de las instalaciones para exigir la devolución de las mismas en unas condiciones óptimas. De no arreglar posibles carencias detectadas, Azpiegiturak como propietaria del campo lo retraerá de la garantía. A preguntas de los grupos junteros, Pradales ha insistido en que, en este aspecto, el contrato es "garantista", ya que existe un aval bancario valorado en "1,5 millones de euros".

El diputado también ha ofrecido datos sobre ingresos, abonados y salidas, confirmando que la Diputación ha ingresado "2,44 millones de euros" en estos nueve años de concesión, de los que "201.784 euros" se consiguieron en el año 2015 a modo de canon ("127.326 en fijo y 74.458 en variables"), dinero que ha sido revertido en la sociedad vizcaína en "actuaciones de promoción económica".

En el terreno deportivo, el diputado ha confirmado que "en los últimos tres años", el campo de golf ha mantenido el número de salidas anuales en las "43.650", un nivel de utilización "medio-alto", según él. Esta cifra se ha conseguido en un entorno



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

complicado desde que estalló la crisis económica, ya que la pérdida de abonados ha sido una tendencia en el sector. Reino Unido ha perdido “128.000 licencias”, Suecia “más de 100.000” y en el caso de Euskadi el bajón ha alcanzado "al 11,6% del total".

Pradales ha señalado que la crisis económica ha cambiado al usuario-tipo del campo, que paga ahora por jugar en lugar de elegir la opción del abono. En 2015, Meaztegi Golf contaba con "793 abonados", de los "2.322" que llegó a tener en 2007. La climatología no ayudó en 2015 ya que solo hubo “218 días practicables”, o sea sin lluvia. Aún así, se contabilizaron "42.000 salidas", por encima de las "36.305" de 2007.

QUEJAS DE USUARIOS

Arturo Aldecoa, del grupo Mixto, ha traído a colación posibles denuncias de usuarios que se le han quejado de deficiencias en las instalaciones y en el pago por usar el campo sin registro alguno. Pradales ha respondido que “ni en Azpiegiturak, ni en el departamento, ni en la Diputación, hemos recibido quejas o denuncia alguna” sobre esta última circunstancia. Hecha la consulta a la empresa en su momento, el diputado ha insistido en que se han producido pagos en la cafetería del complejo deportivo como servicio al usuario y ha asegurado que las salidas quedan registradas, incluso en las páginas oficiales de la federación ya que los propios deportistas quieren que así sea por motivos de "handicap".

NO A UN MODELO VIZCAÍNO DE BARANDILLAS

El único miembro del grupo Mixto, Arturo Aldecoa, defendía esta mañana en la misma comisión que la Diputación estudiase “la posibilidad de disponer en el futuro de una barandilla específica para los paseos y miradores de playas y riberas fluviales”. Pedía la promoción de un “concurso abierto de ideas” para elegir un modelo de barandilla propio de Bizkaia. La proposición no de norma no ha recibido ningún apoyo. El PP se ha abstenido mientras que el resto de grupos junteros de la Cámara vizcaína han votado en contra.